

Toki Alai

Gazteluzar Ibilbidea 1

Tlf.-Fax 943 635260

20 305 I R U N

www.tokialai.org

URTEKO ELKARBIZITZA PLANA

TOKI ALAI BHI
2011-2012 IKASTURTEA

AURKIBIDEA:

1. Sarrera.....	1
2. 2007-2008 ikasturtea: 1. Elkarbizitza Plana.....	1
2.1. Elkarbizitza definizioa.....	1
2.2. Diagnostika.....	2
2.3. Helburuak.....	3
3. 08/09, 09/10 eta 10/11 ikasturteak: Planaren garapena.....	4
3.1. Landutako helburuak (Urteko Planetan jasotakoak).....	4
3.2. Azpimarratzekoak.....	4
4. 2011-2012 ikasturteko Elkarbizitza Plana.....	5
4.1. Helburuak.....	5
4.2. Elkarbizitza positiboa sustatzeko berezko egiturak.....	6
4.2.1. Orain artekoak.....	6
4.2.2. Ikasturte honetarako berriak.....	9
4.3. Lan ildoak.....	10
4.3.1. Prebentzio lana.....	10
4.3.2. Interbentzioak.....	11
4.3.2.1. Ikasleekin banaka.....	11
4.3.2.2. Taldean.....	12
5. Eranskinak.....	13
5.1. Batzordeetako kideak: irakasleen elkarbizitza batzordea, ikasleen delegatuen batzordea, ikasleen elkarbizitza zirkuluak, familien elkarbizitza batzordea.....	15
5.2. Urteko elkarbizitza helburuak.....	19
5.3. Elkarbizitza zirkuluak: prozedura eta formakuntza.....	23
5.4. Ikasle laguntzaileak.....	33
5.5. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapena programazioetan.....	37
5.6. Tutoretza plana	41
5.7. Norbanako tutoretza.....	63
5.8. Neurri zuzentzaileak.....	69
5.9. Ohartarazpena eta prozedura.....	73

1. SARRERA

Ikastetxeak elkarrekin bizitzen ikasteko guneak izanik, bertan egiten dugun guztiak ikasleen garapen integrala du helburu. Elkarbizitza positiboaren lanketa ikastetxean egiten dugun ororekin ematen da, eskolaren proiektu orokorrean txertatzen baitira garatzen ditugun ekimen, proiektu eta jarduera guztiak. Horrenbestez, Urteko Elkarbizitza Plan honek jasotzen dituenak ikastetxearen osotasunean ulertu behar dira, beste proiektuekin lotura zuzenean.

Sinesmen horretan, eskolaren sorreratik modu konszientean egin dugu elkarbizitza positiboaren aldeko lana, eta hainbat egitura eta dokumentu sortzen joan ginen (bitartekotza batzordea, berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko protokoloa edo irakastaldeak besteak beste) 2007-2008 ikasturtean Hezkuntza Sailak ikastetxeko Elkarbizitza Planak egiteko deialdia luzatu zuenerako.

Hemen agertuko dugun hau 2011-12 ikasturterako Elkarbizitza Plana da, aurreko ikasturteetako lanetik eratortzen dena eta hasierako izpiritu berdinarekin jarraitzen duena.

2. 2007-2008 IKASTURTEA: LEHENENGO ELKARBIZITZA PLANA

2007-2008 ikasturtean elkarbizitzaren inguruko hausnarketa eta lan sistematikoa egin genuen lehenengo aldiz. Eskola komunitatearen sektore ezberdinek taldeka egin genuen lan (irakasle, ikasle eta familiak), eta Elkarbizitza Behatokian lan taldeek egindako proposamenak elkartu egin genituen langileria ez irakaslea eta inguruko beste agenteekin batera.

Hartatik, 2008ko ekainean Toki Alai BHIko lehenengo Elkarbizitza Plana izango zena atera egin zen. Egiten genuena sistematizatu eta forma emateko aukera bat izan zen: ikastetxean sortzen diren harremanei marko bat jartzeko, elkarrekin gai honen inguruko hausnarketa bat egiteko, komunitate osoa inplikatzeko, partaidetza eta identifikazio-maila areagotzeko, eskola kultura positibo bat egiteko, plangintza zehatz bat gauzatzeko... Bertan ondorioztatu genituenak agertuko ditugu ondoren, geroztik egindako garapena hobeto ulertzearren eta 11-12 ikasturte honetarako Elkarbizitza Plana bertatik eratortzen delako.

2.1. Definizioa

Honela dio eskola komunitate guztiak adostutako elkarbizitza definizioak:

Elkarbizitza positiboz ulertzen duguna da harremanen oinarrian besteak diren bezala onartzea eta enpatiazko jarrera adieraztea, elkarri entzutea, errespetuz tratatzea eta gatazkak konpontzeko jarrera ona izatea. Horregatik **elkarbizitzaz espero dugu** partaidetza, elkarlana eta hezkuntza komunitate kide guztion arteko komunikazioa ahalbideratzea, emozioak eta errespetua kontutan hartuz. Ikastetxeko pertsona orori ona izaten erakutsi eta lagunduko zaio, denon artean adostutako arauak aplikatuz eta gatazken aurrean tresna ezberdinak erabiliz, erantzun egokia eman ahal izateko.

Hori dela eta, iruditzen zaigu **harremanak** errespetuzkoak eta laguntasunezkoak izango direla, ezberdintasunak onartuz. Irakasleek autoritate positiboa izan beharko lukete ikasleekin, familiek komunikazio maila on bat bultzatu beharko lukete, eta ikasleek irakaslea zein irakaslea ez den langileriaren autoritatea onartu beharko lukete.

Harreman **espazio eta denbora desberdinetan** arauak berdinak izango dira, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz, eta bereziki bultzatuko dugu harremanetarako gune egokiak izan daitezela.

Elkarbizitza Arauak elkarbizitza positiboa errazten duten arauak dira, eta eskola komunitate-kide guztion aldetik konpromezua eskatzen dute. Eskubide eta betebeharrak, aukera eta tratu berdintasuna eta arrisku eta zaurikortasun egoerak islatuko dituzte, eta eskola komunitate osoak egin eta adostuko ditu, betetzen ez direnean hartuko diren neurriak ere adieraziz.

Ikastetxe honetan **gatazkak** elkarbizitzaren zati bat bezala ulertzen ditugu eta, hasieran desatseginak eta neketsuak izan badaitezke ere, ikasteko, hausnarketarako eta aurrera egiteko aukera bat dira. Bere **eraldaketak eta ebazpenak** harremanak berreskuratzea ahalbideratu beharko luke. Neurri hezitzaile eta zuzentzaileak lehenetsiko ditugu, baina zigorrak ere aurreikusi behar dira. Egoerarekin jabetu behar dugu, gure erantzukizuna onartu eta geure sentimenduak besteari entzunez adierazteko gai izan. Honetarako, garrantzitsua da gatazken ebazpenerako tresnak eskuratzeko aukera izatea elkarrizketa, tailer, talde dinamika etab.en bitartez. Gatazken ebazpenean kontutan hartzeak dira:

- Gatazka identifikatu eta onartu.
- Pertsona, ingurua, egoera... aintzat hartu.
- Bestearen lekuan jarri. Enpatizatu, toleranteak izan.
- Entzun eta adierazi: komunikatu.
- Negoziatu eta adostu, akordioak lortu.
- Irtenbidearekin hitzeman.

2.2. Diagnostika.

Egin genuen diagnosiari dagokionez, badago azpimarragarria iruditzen zaigun ezaugarri bat: sektore ezberdinek bakarka egin genuen hausnarketa, baina denek antzemandako indar eta ahuleziak oso antzekoak izan ziren. Hauexek izan ziren:

➤ Indar-guneak:

- Berrikuntza prozesuak bideratzen dituen Zuzendaritza talde bat dago. Daukaguna aztertu eta aurrera egiteko bideak bilatzen dira, gure ikasleen garapen integrala helburu delarik.
- Autoanalisia eta ebaluazioa sustatu egiten dira ikastetxeko hobekuntza prozesua etangabea izan dadin. Martxan ditugun prozesuen jarraipena oso zuzena da, egiten dugunaren hobetzekuntza ebaluaziotik hasten dela iruditzen zaigulako.
- Ikasleen portaera prosozialak sustatu egiten dira.
- Harremanak pertsona ororen eskubide eta betebeharretan oinarrituta daude.

- Gatazkei modu eraikitzaile batez egiten zaie aurre. Ikastetxean elkarri entzun egiten diogu, eta esku-hartze hezitzaileak aurkezten dituen errepertorio zabala dago.
- Eskola komunitate osoko kideek adostutako harremanetarako ereduak daude, errespetuan oinarritzen direnak.
- Ikastetxeak elkarbizitza positiboa proiektuaren garapenerako baliabide pertsonal eta materialak erabiltzen ditu. Asmoak aurrera eramateko ezinbestekoak dira baliabideak, eta gurean hau lehentasunezko gaia da.

➤ Ahul-guneak:

- Irakasleen koordinazioa eta esperientzien trukaketa. Proiektu ezberdinak daramatzagu aurrera, eta honetarako orduak baldin baditugu ere, gehiagoren beharra ikusi zen. Puntu hau ahulezi bezala agertzea esanguratsua iruditzen zaigu, konpartitzearen kultura egiten ari ginela adierazten baitu, gure tradiziozko kultura indibidualista gaindituz.
- Ez ziren ikasleen interesak kontuan hartzen ikasketa-jardueren aukeraketan. Ahulezi hau oso nabarmen agertu zen, eta baita planifikatu ere.
- Arlo akademikoari arlo pertsonalari baino garrantzi gehiago ematen genion. Badirudi hau kontraesanean zegoela aipatutako indar-guneekin eta, beraz, ekin beharko genion ikastetxeak gune akademikoak baino gehiago heziketa guneak garelako barneratuz.
- Arautegia ez genuen aspaldian berrikusi, eta, horretaz gain, bere osakeran ez genuen kide guztiek parte hartu.
- Ikasle eta familien partaidetza nabarmen hobetu zitekeen. Ikasleek bereziki aipatu zuten ahulezia hau.

2.3. Helburuak

Diagnosi honetatik abiatuz, ondorengo helburuak finkatu genituen:

1. Orduetegiak egiterakoan koordinaziorako uneak kontenplatu.
2. Talde lana eta komunikazioa sustatu, estrategiak trukatu, konpartitzearen kultura egin. Ikastetxean ematen diren praktika onak ezagutarazteko ekintzak sustatu.
3. Tutoretza plan orokorrean elkarbizitza positiboaren sustatzea zutabea izan dadila.
4. Programazioetan honelakoak kontuan hartu eta mintegietan adostu nola txertatu gai hauek curriculumean.
5. Gelan lantzen ditugunekin malgutasunez jokatu eta, curriculumean ere, ikasleen interesak kontutan hartu eta erabakitzeko aukera eman ahal den neurrian programazioak diseinatzerakoan motibazioa gehitzearen.
6. Ikasleen partaidetza sustatzea.
7. Ikastetxeko arautegia berrikusi hezkuntza komunitate osoaren partaidetzarekin.

3. 08/09, 09/10 eta 10/11 IKASTURTEAK

3.1. Landutako helburuak

Hiru ikasturte hauetan 2007/2008 ikasturtean finkatutako helburuak garatzen joan gara, eta beste berri batzuek gehitzen. Hauek izan dira helburu zehatzak:

08-09 IKASTURTEA	09-10 IKASTURTEA	10-11 IKASTURTEA
1.2007-2008 ikasturtean Urteko Elkarbizitza Planaren ezarritako helburuak garatzea.	5.Ikastetxeko Elkarbizitza Plana berrikustea eta egin beharreko aldaketak egitea.	10.Ikastetxeko ebaluaziotik ateratako hausnarketaren ondoren Elkarbizitza Batzordeari dagozkion ondorioak lantzea
2.Elkarbizitza Behatokia bultzatzea.	6.Elkarbizitza Behatokiari jarraipena ematea.	11.Elkarbizitza Behatokiari jarraipena ematea.
3.Jangelan sortzen diren egoerei aurre egiteko estrategiak garatzea.	7.Jangelan sortzen diren egoerei aurre egiteko estrategiak garatzen jarraitzea.	12.Jangelan sortzen diren egoerei aurre egiteko estrategiak garatzen jarraitzea.
4.DOA erakundearekiko elkarlana sendotzea.	8.DOA erakundearekiko elkarlana sendotzea.	13.DOA erakundearekiko elkarlana sendotzea.
	9.1. mailako ikasleen zirkulua eratzea	14.1. mailako ikasleen zirkulua eratzea eta 2. mailakoa berritzea.

3.2. Azpimarratzekoak.

- 2008ko ekainean finkatutako Elkarbizitza Planaren **helburuak erabat bete** dira.
- Ordugegietan, betiko koordinazio guneetaz gain (mintegiak, batzordeak) **koordinazio gune berriak** daude: HBSPko irakasleen koordinaziorako bi gune (gizarte eta hizkuntzen eremua eta eremu zientifiko-teknologikoa), irakaskuntza konpartitua koordinatzeko gunea.
- Irakaslearen artean **konpartitzeko kultura** erabat errotuta dago.
- Elkarbizitza positiboaren lanketa eremu guztietan ematen da, **gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna**, tutoretza planaz gain, gai guztietako programazioetan ere txertatuta dagoelarik. 5.5. *eranskina* 2010-2011 ikasturteko programazioetan gaitasun hau nola agertzen den jasotzen duen dokumentua da.
- **Ikasleen partaidetza** bultzatzen duen egitura ezberdinak sortu eta sendotu dira:
 - Delegatuen batzarra.
 - Ikasleen mailako elkarbizitza zirkuluak.
 - A21 batzordea.
 - Hizkuntza Normalkuntza Batzordea

- **Familien elkarbizitza batzordea** mantendu eta sendotu egin da: 40 kidetik gorako batzordea izan dugu urtero.
- Eskolako **AJA eta arautegia** eskola komunitateko kide guztien partaidetzarekin **berritu** ditugu.
- **Jangelako begiraleen formakuntza** euren ordutegiaren barruan txertatu da. Gatazken ebazpenari denbora eman diogu, eta jangelako giroan asko nabaritu da.
- Elkarbizitza plana **ebalatu** eta helburu berriak finkatu dira.
- **Gatazkei aurre egiteko modu ezberdinak** finkatu ditugu:
 - Prebentzio lan sistematikoa.
 - Bitartekotza normalizatua.
 - Neurri zuzentzaileak.
 - Interbentzio zehatzak gatazka bakoitzaren arabera, bakarka edo taldean interbenituz.
- Elkarbizitza positiboa sustatzeko lanak eta **aniztasunaren trataera** egokirako lanak bat egin dute. Baliabide pertsonalak ikuspuntu honetatik bideratzen ditugu, adierazle nabarmenena irakaskuntza konpartitua delarik.

4. 2011-2012 IKASTURTEKO ELKARBIZITZA PLANA.

Gorago aipatutakoak izanik abiapuntu, 2011-2012 ikasturte honetan egitasmo ditugunen artean zera azpimarratuko dugu:

- Helburuetan hiru ildo nagusi daude:
 - Partaidetzan indar berezia egin dugu, ikasleen partaidetzan bereziki erreparatuz. Eskola komunitate osoak eskola berea egin dezala nahiko genuke, eta denon artean nahi dugun eskola lortzeko bideak egitea.
 - Gatazken jarraipena ezinbestekoa da, agenteak beraiek eginez ebazpen positiboaren arduradun.
 - Jangela ikastetxeko eremu garrantzitsu izanik, irakasle eta begiraleen arteko harremana sendotzen jarraitu nahi dugu begiraleen rola indartzearen eta jangelan ikasleen jarrerak hobetzearen, eta honetarako begiraleen formakuntzaren jarraipena garrantzitsua izango da.
- Ditugun egiturak sendotuko ditugu, eta beste berri batzuk sortu.
- Bi lan ildo nagusi ditugu: prebentzioarena eta interbentzioarena, bakarka zein taldeka.

Azpimarratu nahi dugu ere elkarbizitza planaren garapenaren ardura nagusia irakasleen elkarbizitza batzordeak izango duela. Hezkuntza Sailak elkarbizitza gaiak jorratzeko ordurik ematen ez duenez ez dugu elkarbizitza arduradunik, baina ikastetxeko kredituetatik 7 irakaslek ordu bana dute astean gai hauek bideratzeko.

4.1. Helburuak

Hauek dira Urteko Planean jaso ditugun elkarbizitza helburuak:

1. Ikastetxean ematen diren gatazken jarraipena egitea eta berauen irtenbide positiboa bultzatzea: ikasleak, taldeak, ezarritako neurrien jarraipena, neurri zuzentzaileen sustatzea...
2. 1. mailako ikasleen elkarbizitza zirkulua eratzea eta 2. eta 3. mailetan berritzea: 3. mailan lehenengo aldiz eratuko dugu egitura, baina bertan dauden ikasleentzat

3. ikasturtea izango da. Maila honetarako egituraren beraren egokitasuna baloratu beharko dugu.
3. Delegatuen Batzarra ikasleen partaidetza arduratsuen erreferente bilakatzea: ikasleek beraiek finkatutako helburuak jorratuko ditugu.
4. Ikasle laguntzaileen figura sortzea egitura gisa: batez ere 1. eta 2. mailan ezartzen saiatuko gara, eta ikasturtearen garapenak berak eramango gaitu beste mailetan ere finkatzera.
5. Familien partaidetza bultzatzen jarraitzea familien elkarbizitza batzordearen (FEB) bitartez: aurreko ikasturteko memorian jasotakoari helduko diogu, 2 lan ildoekin: gai ezberdinei buruzko formakuntza saioak batetik, eta ikastetxeko eremu ezberdinen azterketa bestetik.
6. Jangelan sortzen diren gatazkei aurre egiteko estrategiak garatzen jarraitzea: Mapi Urrestirekin formakuntzan jarraituko dute begiraleek, eta jangelako begirale bat irakasleen elkarbizitza batzordera etorriko da hilabeteen behin gatazken jarraipena egitera.

Helburu hauen garapen osoa, Urteko Planean jaso, 5.2. eranskinean dago

4.2. Elkarbizitza positiboa sustatzeko berezko egiturak

Ikastetxean dugun orok eragiten du, aipatu lez, elkarbizitza positiboaren aldeko lanean. Ditugun egitura horien guztien artean, ordea, badaude batzuk elkarbizitza batzordeetatik zuzenean eratortzen direnak eta, beraz, elkarbizitza positiboa sustatzea dutenak berezko helburu. Hauen artean, halaber, bi egitura mota ezberdinduko dugu: aurreko ikasturteetan sortutakoak alde batetik, eta ikasturte honetan sortu nahi ditugunak bestetik.

4.2.1. Orain artekoak.

- Irakasleen batzordea: 7 irakaslek sortzen dugu batzordea: Ikasketa Burua, orientatzailea, jangelako arduraduna, HIPI irakaslea (ofizialki horrelakorik ez baldin badugu ere), mintegi buru bat eta arloko irakasle bi. Batzordea asteazkenetan elkartzen da, 3. saioan, eta berari dagokio elkarbizitza plan honen garapenaren jarraipena. Ikasleekin hartutako neurriak, batzorde ezberdinen lanaren jarraipena, egin beharreko interbentzioak... izaten dira batzorde honen hizpide eta, beraz, ikastetxearen elkarbizitzaren erreferente bilakatzen da.
- Familien elkarbizitza batzordea: 2007-2008 ikasturtean batzorde hau lehenengo aldiz ezarri zenetik jarraipena izan du, eta ikasturte honetan 52 ama eta aitek osatzen dute. Urrian egiten diren ikasturte hasierako bileretan zuzendaritza taldeko kideek batzordearen azalpena eta parte hartzeko deia egiten dute, eta ondoren geletan tutoreekin parte hartu nahi duenak izena ematen du.
 - Hilabeteen behin elkartzen da batzordea, ostegunean 18:00etatik 19:30ra.
 - Azaroan hasi eta maiatzean bukatuko da.
 - Deialdia bilera baino astebete lehenago egiten da, eta honekin batera aurreko saioaren akta eta egindako lanaren laburpena bidaltzen da, eta baita hurrengo saioan jorratuko diren tresnak hala beharko balitz. Hau guztia 52 kideei bidaliko zaie beti.
 - Ikasturte honetarako bi lan ildo zehatz finkatu ziren aurreko ikasturteko memorian:

- Familiei erakargarri egingo zaien formakuntza saio ezberdinak antolatu, gai ezberdinekin.
 - Ikastetxeko eremu ezberdinei buruzko informazioak jaso eta familien ikuspuntutik ekarpenak jaso.
- Ikasleen delegatuen batzordea: familiak bezala, delegatuen batzarra 07-08an hasi zen sistematikoki elkartzeko, eta geroztik errotuta dugun egitura da. Irakasleen elkarbizitza batzordetik lan proposamenak egiten baditugu ere, ikasleek beraiek finkatuko dute ikasturterako lan plana:
 - Hilabetean behin elkartzeko da batzordea, klase orduetan. Aste-egun eta ordu ezberdinetan egiten dira bilerak ikasleak saio berdinetatik atera behar ez izateko.
 - Talde txikietan egiten da lan gaiaren arabera fitxekin (irakasleen batzordean prestatzen direnak), eta ondoren komunean jartzen dira ondorioak.
 - Gaiaren arabera, delegatuek geletara eramango dituzte batzordean jorratutako gaiak.
 - Ikasleen proposamenak aintzat hartuko dira ikastetxeko erabakiak hartzeko orduan, eta ikasleen ekimenak aurrera eramateko beharrezkoak jartzen saiatuko da.
 - Ikasleen partaidetzaren erreferentzia izatearen helburua dugun neurrian, erronka bat ere badugu: ordezkarien aukeraketa serio har dezatela ikasleek.
- Ikasleen elkarbizitza zirkuluak: egitura honetan 3. urtea izango dugu hau. 1. mailan ezarri genuen lehenengoz, bigarren mailara zabaldu iaz, eta 3. mailara iritsiko da aurrean. Hau da prozedura:
 - Urrian geletan egitasmoa azaltzen dute elkarbizitza batzordeko kideek. Tutoretza saioetan egiten da azalpen hau.
 - Gela bakoitzetik 4-5 ikasle dira elkarbizitza zirkulukoak.
 - Aukeraketa egin ondoren, zirkuluko ikasleei formakuntza ematen zaie. Formakuntza hau ikastetxetik kanpo egiten da, Martindozenea aterpean hain zuzen ere.
 - Zirkulua mailaka elkartzeko da hilabetean behin. Horretarako, mailako tutoretzak ordu berdinean dira talde guztietan.
 - Ikasketa Burua eta orientatzaileak bideratzen dituzte bilerak.
 - Laguntza behar duten ikasleak detektatzea da helburu: bakarrik dauden ikasleak, berdinen aldetik tratatu ez egokia jasaten dutenak, besteak gaizki tratatzen dituztenak...
 - Zirkuluaren bileretan ikasleek antzeman dituzten kasuak aztertze dira, eta laguntzarako plangintza ezartzen da kasu bakoitzean. Ikasleak beraiek dira laguntzaren arduradun kasu gehienetan, baina batzuetan elkarbizitza batzordeko kideek beraiek bidera dezakete.
 - Arduraren bat hartzen dutenek garapeneren berri emango diete irakasleen batzordeko kideei, eta hurrengo bileran jarraipena egingo da.

(5.3. *eranskinean* zirkuluei dagokien aukeraketa prozesua eta formakuntza agertzen dira)

(5.1. *eranskinean* batzorde guzti hauetako kideak agertzen dira).

- Zibermanagerrak: Hiritartasuna arloan garatutako Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu batetik eratorritako egitura da hau. 23 ikaslek interneten erabilera egokiaren inguruko formakuntza jaso zuten iaz eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin lan egin zuten ondoren. Horretaz gain, familiekin ere aritu ziren lanean. Ikasturte honetarako 9 ikasle dira lanean jarraitzeko prest daudenak, eta lan ildo ezberdinak izango dituzte:
 - Familientzat tuenti saio praktiko bat garatu familien elkarbizitza batzordearekin elkarlanean.
 - Delegatuen batzarrean formakuntza eman delegatuek geletara eraman dezaten.
 - Komunitateari zein zerbitzu eskaini diezaiokegun ere aztertuko dugu. Lan hau Pantalla Amigak elkarrekin elkarlanean egiten dugu.

- Jangelako langileen batzordea: jangelako langileen hezitzaile rola gero eta nabarmenagoa da ikastetxean. Lan ildo ezberdinak daude:
 - Gatazken ebazpenerako formakuntzaren 4. urtea izango da hau. Mapi Urrestik bideratuko du formakuntza hau.
 - Ematen diren gatazkak berauen jarraipenerako kuadernoan idatziko dira, eta jangelako arduradunak aztertuko ditu begiraleekin batera.
 - Jangelako begirale bat irakasleen elkarbizitza batzordearen bileretara joango da hilabetean behin estrategiak adostu eta ikasleen jarraipena egiteko.

- Norbanako Tutoretzak: 15 irakaslek dute Norbanako tutoretzarako ordua ordutegiaren barruan. Hauxe da prozedura:
 - Irakastaldeak NT behar duen ikaslea detektatzen du.
 - Tutoreak zuzendaritza taldeko kideei honen berri ematen dio, eta ikasle horrentzat egokiena izan daitekeen NT bilatzen da.
 - Ikasleari neurria proposatzen zaio, eta berak onartzen baldin badu bakarrik jarriko da prozesua martxan.
 - Irakasleak onartu ondoren, tutoreak familiari jakinaraziko dio eta bilera bat egingo dute plangintza zehaztearren tutoreak, NTk, zuzendaritza taldeko kideren batek, familiak eta ikasleak.
 - Bileraren ondoren NTaren lana hasiko da, ikaslearen beharren arabera ezberdina izango delarik.

(5.7. *eranskinean* Norbanako Tutoretzari dagozkionak jasota daude)

- Partaidetzarako beste batzordeak: irakasleek osatzen dituzten batzordeetatuz gain, beste batzorde batzuetan ere ikasle edota familiek parte hartzen dute:
 - A21 batzordea: gela bakoitzeko ikasle ordezkaria eta ordezkoa eta, momentuz, familietako bi ordezkari. A21 proiektutik eratortzen diren jarduerak bideratzen dituzte.
 - Hizkuntza Normalkuntza Batzordea: ikasleen batzordean 87 ikaslek hartzen du parte euskararen erabilera bultzatzeko lanean. Ikasleentzako ekintza zehatzak antolatzen dituzte.

4.2.2. Ikasturte honetako egitura berriak

Aurreko ikasturteetan egiturak sendotzeaz gain, ikasturte honetan bi egitura berri finkatu nahi ditugu:

- 3. mailako ikasleen elkarbizitza zirkulua: 3. mailan dauden ikasleek 1. eta 2. mailan elkarbizitza zirkuluan parte hartu dute, eta beraiei dagokie lehenengo aldiz 3. mailan egitura hau ezartzea.
 - 1. eta 2. mailan egituraren eraginkortasuna frogatu ondoren, ikasturte honetan ikusiko dugu egituraren balioa maila honetan, gatazka motak aldatu egiten baitira adinaren arabera.
 - Prozedura lehen azaldutakoaren berdina izango da.
 - Aurreko ikasturteetan partaide izan ez diren ikasleek parte har dezatela bultzatuko dugu ahalik eta ikasle gehienek izan dezaten esperientzia hau.
- Ikasle laguntzaileak: ikasturte honetan lehenengo aldiz ezarri nahi dugu egitura hau.
 - Ikasleen arteko laguntza sareak sortu nahi dira.
 - Gela berdineko ikasleak laguntza behar duten ikasleen laguntzaile izendatzea da helburu.
 - Irakastaldeak edo tutoreak antzemango dute ikaslearen beharra, eta elkarbizitza batzordearekin batera aztertuko da ikasle laguntzailearena izango den erantzun egokiena.
 - Ikasle laguntzailearen egitura gela batean ezartzeko, gela osoarekin lan egingo da aurretik.
 - Irakastaldean gelan egindako interbentzioaren ondorioak aztertu eta beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira.
 - Lanean hasteko, tutoreak eta elkarbizitza batzordeko irakasle batek bilera egingo dute laguntzaile eta lagunduarekin: ikasle laguntzaileei euren funtzioak azaldu eta jasotzen dituen dokumentua emango zaie, eta ikasle lagunduak laguntza onartzen duela eta baldintzak jasotzen dituen dokumentua sinatuko du.
 - Jarraipen eta ebaluaziorako tresna eta datak ezarriko dira. Tutoreak eta elkarbizitza batzordeko kideek egingo dute jarraipen hau ikasleekin batera. (5.4. *eranskinean* ikasle laguntzailearen egiturari dagozkion dokumentuak jasota daude).

4.3. Lan ildoak.

Bi dira lan ildoak: prebentzioarena eta interbentzioarena.

4.3.1. Prebentzio lana.

Behin baino gehiagotan azaldu dugu Ikasturteko Elkarbizitza Plan honetan ikastetxean egiten dugun orok eragina duela elkarbizitza positiboaren lanketan. Gorago elkarbizitza positiboa jorratzeko berezko egiturak azaldu ditugu, baina kontuan hartu behar dira ere ikastetxean garatzen diren beste hainbat:

- Alderdi curricularra: gorago aipatu dugu arlo guztietako programazioetan gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapenerako zer egingo den zehaztuta dagoela (5.5. *eranskina*). Beraz, irakasle guztiek onartua dugu eremu honen garapenarekiko dugun ardura. Hezitzaile gara hitzaren zentzurik zabalenean, eta sinesmen hori funtsezkoa da elkarbizitza positiboa modu sistematiko eta konzientean jorratzeko.
- Eskola inklusiboa: elkarbizitzaren bideak aniztasunaren trataerara eramán gaitu, eta honek eskola inklusiboaren sinesmenera. Hiru urtez Berrikuntza Proiektu Globala garatu dugu (07/08-09/10), eta aurrerapausu garrantzitsuak eman ditugu ikasle guztiei arreta egokiena ematearren. Hemendik eratortzen dira lehenago aipatutako hainbat egitura. Lan honen ondorioetariko bat azpimarratuko dugu hemen: irakaskuntza konpartitua. Hezkuntza Sailak errefortzuetarako ematen dizkigun ordu guztiak gelan bi irakasle sartzeko ematen ditugu, eta Hezkuntza Premia Bereziatako ikasleen kasuan ere PT irakasleak gelan sartzen dira ikaslearekin batera ahalik eta gehienetan (salbuespena egokitzapen oso esanguratsua duten ikasleekin egiten da).
- Tutoretza plana: 07-08 ikasturtean egindako elkarbizitza planaren helburuetariko batek tutoretza plana zuen hizpide, bere lan ildo nagusia elkarbizitza positiboaren sustatzetik etorri behar baitu. Plana berritu egin da, eta bat dator erabat hemen azaltzen ari garenekin. 5.6. *eranskinean* tutoretza plan osoa dago.
- Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak: “Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako hezkuntza” irakasgaia elkarbizitza positiboa sustatzeko beste aukera bat bezala bizitzen dugu. Tutoreek ematen dute, elkarbizitza plana eta tutoretza planarekin lotuta, eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak garatzen dira. Ikasleek euren inguruari buruzko hausnarketa egin eta eurek zertan eragin dezaten pentsa dezatela bultzatzen da, ikasten duten aldi berean ingurua hobetuko duen zerbait egiten dutelarik. Talde bakoitzak proiektu bat garatzen du, eta proiektu guztiak denonak dira. Jarrera prosozialak garatzen dira erabat, elkarbizitza positiboaren bidean.
- Ekintza osagarriak: orientazio mintegitik hainbat ekintza osagarri antolatzen da hitzaldi edo tailer moduan ikasleen garapen integrala eta elkarbizitza positiboa bultzatzen dutenak: drogei buruzko tailerra, hezkuntza afektibo-sexuala, hezkidetzeta... Urteko Planean jasota daude hauek guztiak.

- Inguruarekin elkarlana: eskolak inguruarekin lan egin behar duela da gure sinesmenetariko bat. Gure lana ingurura zabaldu behar dugu eta inguru eskolara ekarri. Horretarako lan eremu ezberdinak jorratzen dira:
 - Irungo Plan Hezitzailea garatzeko talde eragilean gaude.
 - Beste ikastetxeekin elkarlanean aritzen gara.
 - Udaletxeko gizarte zerbitzuekin eta kale hezitzaileekin harreman hestua du orientatzaileak.
 - Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak garatzeko lehenengo pausua errealitate ezberdinak ezagutzea da, eta horretarako elkarte ezberdinetako kideak etortzen dira hitzaldiak ematera. Honen ondoren, garatuko den proiektuaren arabera elkarte batekin edo bestearekin arituko gara.
 - Kale Dor Kayiko elkarteko kideek gure ikasle ijituekin lan egiten dute, eta ikasle hauekin helburu komunak ezartzen ditugu.
- Neurri zuzentzaileak: 2008ko dekretuaren zentzuarekin bat egiten dugu erabat. Arautegia honen arabera berritu zen 08-09 ikasturtean eskola komunitate osoaren partaidetzarekin, eta kutsu hezitzailea dauka erabat. Neurri zuzentzaile posibleen zerrenda ere badago, etengabe eta beharren arabera berritzen duguna. Zerrenda hau 5.8. *eranskinean* jasota dago.

4.3.2. Interbentzioak.

Edozein gatazkaren aurrean, txikiena badirudi ere, interbenitu beharko dugu. Interbentzio honek helburu zuzentzailea izango du beti, eta egoeraren arabera ezberdina izango da. Horretarako, adi aztertu beharko da egoera eta horren arabera erabakiak hartu, erabaki hauetan egon baitaiteke neurrien egokitasuna edo ez.

Orokorrean, bi interbentzio mota aurreikusten dira: ikasle banakakoekin edo gelan orokorrean.

4.3.2.1. Ikasleekin banaka

Ikaskide banakakoekin bi egoera mota eman daitezke:


- Gatazka zehatz bat gertatzea irakasle bat aurrean dagoelarik: kasu honetan, gatazkaren ebazpenaren ardura nagusia irakasle horrena izango da. Berak aztertu beharko du egoera eta, horren arabera, ikaslearekin neurriak hartu. Gertatutakoaren eta erabakiaren berri ikaslearen tutoreari emango dio ohartarazpen idatziaren bitartez (5.9. *eranskina*).
- Ikasle batek jarrera orokor gatazkatsua izatea: tutoreak izango du egoera honetan ardura nagusia irakastaldearekin batera. Tutoreak irakasleen ohartarazpen orriak jasoko ditu, edo irakastaldearen bileretan egoera aztertuko da eta ikasle horrekin eta egoera horretan hartu beharriko neurriak ezarriko dira elkarbizitza batzorde eta zuzendaritza taldearekin batera behar izanez gero. Neurriak anitzak izan daitezke:
 - Egoeraren araberrako neurri zuzentzaileen aplikazioa.
 - Norbanako tutorea ezartzea.
 - Orientatzailearengana bideratzea (eta honek, egokia ikusten baldin bada, beste kanpoko zerbitzuengana).

- Proiektu zehatzetarako proposatzea (PROA, HBSP, mediateka...)
- Ikaslearekin kontratu bat egitea.
- Taldekideen laguntza bilatzea (ikasle laguntzailea ezarri, adibidez), kasu honetan taldeko interbentzioa egin daitekeelarik ikaslearen egoerari aurre egiteko.
- Aurrekoak egin ondoren jarrera aldatzen ez baldin bada, prozedura irekitzea.

4.3.2.2. *Taldean.*

Talde batean lan dinamika ezkorra hartzen denean ere interbenituko dugu. Kasu honetan ere, egoera ongi aztertu beharko dugu eta honen arabera interbentzio mota diseinatu. Hau da prozedura:

- Irakastaldeak, edo tutoreak irakasleen informazioak jaso ondoren, talde baten dinamika ezkorra antzematen duenean elkarbizitza batzordeari berri ematen zaio.
- Elkarbizitza Batzordean egoera aztertu eta, tutorearekin batera, talderako interbentzioa planifikatzen da.
- Interbentzioa tutoreak eta elkarbizitza batzordeko kide batek garatuko dute.
- Interbentzio honen iraupena helburuen araberakoa izango da eta, beraz, edozein arloko orduak hartuko dira interbentzioa egiteko. Irakasle guztiok argi izan behar dugu hau.
- Interbentzioa bukatutakoan irakastaldearen bilera egingo da ondorioak aztertzeke eta denok egin beharrekoak finkatzeko.
- Jarraipenerako tresnak eta epeak finkatuko dira.



Toki Alai

Gazteluzar Ibilbidea 1

Tlf.-Fax 943 635260

20 305 I R U N

www.tokialai.org

ERANSKINAK:

- 5.1. Batzordeetako kideak
- 5.2. Urteko elkarbizitza helburuak.
- 5.3. Elkarbizitza zirkuluak.
- 5.4. Ikasle laguntzaileak.
- 5.5. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapena programazioetan.
- 5.6. Tutoretza plana.
- 5.7. Norbanako tutoretza.
- 5.8. Neurri zuzentzaileak.
- 5.9. Ohartarazpena eta prozedura.